

MOZIO ARRUNTA

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAN HARTZEN DIREN ERABAKIEN GAINEAN

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan hartzen diren erabakiei buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilak 30etik aurrera, 12 urtetik beherakoek doan bidaiatzen dute MUGI sisteman sartuta dauden garraio publikoko operadore gehienetan. Guztietan ez, DBUSeko erabiltzaileek otsailaren 5 arte itxaron behar izan baitute neurri honetaz gozatu ahal izateko.

Prozedura aldetik, hainbat garraio bideetan adingabeek gidariari beren "gazte" txartela erakutsi beharko diote, eta doako paperezko txartela emango zaie.

Hasiera batean, otsailean zegoen jarrita eta adostuta data, baina ez dakigu zer arrazoi medio, azkeneko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako ezohiko batzarrean, data hori aurreratzea erabaki zuen Mugikortasuna, Turismo eta Lurralde Antolaketako departamentuaren Diputatuak, Azahara Dominguezek.

12 urtetik beherakoentzat doako erabilera eragin handiko neurria izanik, ez dugu ulertzen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ezohiko batzar batean nolatan aldatzen duen aurrez adostutako data eta neurri berri bat proposatzen den, partzuergoa osatzen duten kide guztiek data horren berri izan gabe eta guztiak ados egon ez arren.

Gure ustez larriena, DBUS bezalako operadorea neurri honen hasiera-datatik kanpo uzten duena, harekin kontsultatu ez delako eta teknikoki egingarria ez den neurri bat hartu ezin duelako.

Benetan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Gipuzkoako mugikortasun bateratu baten eredu izan nahi badu, Gipuzkoako bidaiarien garraio-zerbitzua hobetzeko eta haren helburua bada Gipuzkoa osoa garraio-eredu iraunkorreko sistema baten bidez integratzea.

Ez dugu ulertzen, Gipuzkoako Lurraldeko parte diren operatzaile eta baliabide ezberdinen kudeatzaileak behar bezala informaturik ez izatea eta haien iritzia kontuan ez izatea.

Hori guztia dela eta, **mozio arrunt** hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiako Mugikortasuna, Turismo eta Lurralde Antolaketako departamentuaren Diputatua den, Azahara Dominguezi, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzan hartu beharreko neurrien berri garaiz informatu ditzan Partzuergoko kideak eta ahal dela hartu beharreko erabakiak gehien baten adostasunez har ditzaten.

Donostian, 2025eko otsailaren 7an



Juan Karlos Izaguirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea